

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak landa-merkataritza modernizatzeko eta dinamizatzeko laguntza-programa bultzatu du

2.500 biztanletik beherako herrietako txikizkako saltokien jabeek aholkularitza teknikoa eta prestakuntza jasoko dituzte haien negozioak aldatzeko

Asteartea, 2018.eko maiatzak 15

Nafarroako Gobernuko Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak landa-merkataritza aldatzeko programa bultzatu du, Nafarroako txikizkako merkataritza sustatzeko eta landa-guneak dinamizatzeko helburuarekin. 2.500 biztanletik beherako herrietan dauden txikizkako saltokien titularrek ekimen honetan parte hartzeko eskaera aurkeztu ahal izango dute bihartik hasi eta datorren ekainaren 6ra bitarte.

Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroak (CEIN) landa-biztanleriak egun dituen premiak aztertzeko egindako analisiaren ondoren landa-inguruneko merkataritza-enpresentzat abian jarritako orientazio-programaren bitartez, tokiko merkatariei aholkularitza teknikoa eta tutorizazioa eskainiko zaizkie, haien establezimenduetan bertako biztanleei eta bisitariei produktuak eta zerbitzuak eskaini ahal izateko. Modu horretan, [landamerkataritzaren ereduaren](#) barnean sartzen da oinarritzko elikadura-produktuak eta premia biziko produktuak saltzen dituen txikizkako saltokia, orohar elikadura-produktuak eta bereziki bertako produktuak dastatzeko aukera ematen duena, inguruko informazio turistikoa ematen duena eta, horrez gain, bertan bizi direnentzako paketeak edo bestelako produktuak hartzeko puntua izango dena.

Programan parte hartzen dutenek, CEINen eta tokiko agenteen laguntzarekin, saltokiaren egungo egoera aztertzeaz gain, aldaketa-plana definituko dute. Gainera, arlo garrantzitsuenen inguruko prestakuntza espezializatua eskainiko zaio merkataritari establezimendua egokitzearen; hots, salmenta fisikoekin nahiz digitalekin loturikoa edo produktuak dendan antolatzearen ingurukoa. Horrekin batera, tutoretza pertsonalizatuak egingo dira programan parte hartzen dutenekin.

Izen-emateak

Programan izena eman ahal izango dute 2.500 biztanletik beherako herrietan txikizkako merkataritzako enpresa indarrean dutenek. Parte hartu nahi duten pertsonak [inprimakia](#) bete beharko dute eta helbide honetara bidali: comerciorural@cein.es.

Parte-hartzaileak hautatzerakoan, CEINek, besteak beste, ondorengoak baloratuko ditu: establezimenduaren egungo jarduera nagusia, turismo aldetik interesa duen udalerrian eta eremuan kokatzea edo enpresak negozioa aldatzea lortzeko hartutako konpromiso irmoa.

Establezimenduak aipatu irizpideen arabera hautatuko dira, eta geografikoki banaketa orekatua izaten ahaleginduko da. Programan parte hartzeko hautatutako bost negozioak ekainaren 18tik aurrera hasiko dira aholkularitza- eta prestakuntza-prozesua lantzen.

Informazio gehiago nahi izanez gero kontsultatu [webgunea](#) deitu 848426000 telefonora edo idatzi comerciorural@cein.es e-postara.